

# BERTSO BERRI TA KANTA ZAR

(II)

## NUN ZER

Orraldea

Lora polita . . . . .	3
Uso zuria . . . . .	3
Gabon gabea . . . . .	4
Goiko mendian . . . . .	4
Illun-abarra . . . . .	4
Txalopin txalo . . . . .	5
Kukuak . . . . .	5
Aitak eman daut dotea . . . . .	6
Atzo goizean . . . . . <sup>^</sup>	6
Itxasoan urak andi . . . . .	7
Atxia motxia . . . . .	7
Boga, boga! . . . . .	8
Txakur gorri txiki bat . . . . .	8
Ondarribia . . . . .	8
Txoriñuak kaiolan . . . . .	9
Aurra lo dago (Igotz) . . . . .	10
Auroi, lo . . . . .	11
Basatxoritxu . . . . .	11
Ardo gorri naparra . . . . .	12

Arbola bat (Arrese-Beitia) . . . . .	13
Gure Arbola gazteari (Arrese-Beitia). . . . .	16
Ume eder bat (Iparragirre). . . . .	18
Ncre andrca (Iparragirre). . . . .	19
Limosnatxo bat (P. M. Otaño). . . . .	20
Zazpiak bat (P. M. Otaño). . . . .	22
Ikusten duzu goizean (Elizanburu). . . . .	23
Urrundik ikusten dut (Elizanburu). . . . .	24
Mutil zarren bizitza (Xenpelar). . . . .	26
Moskorkeria (Basarri). . . . .	28
Egipto'ra . . . . .	31
Erregeak . . . . .	32
Biotz-lilia (Artadi). . . . .	33
Amari agur (Dundunzar). . . . .	35
Aize-erota (Dirauket). . . . .	36
Pobreak pobre (Aia Fidel). . . . .	37
Txakur zintzoa (Aita Fidel). . . . .	37
Gabon-gaba (Aita Fidel). . . . .	39
Kalamua (Egieder). . . . .	39
Gorbeia'ko Gurutzea (Arrugain). . . . .	40
Mirua ta amilo!xa . . . . .	41
Txarrizaiña (Arrugain). . . . .	41
Guipuzkoa'ko lur maite (Arrugain). . . . .	43
Maite (Arrugai;i). . . . .	43
Eretxi bi (Enbeita'tar Kepa). . . . .	44
Txomin eta Matxalen (Enbeita'tar Kepa). . . . .	45
Bei zarren bertsuak (Enbeita'tar Kepa) . . . . .	46
Bertsolaria (Enbeita'tar Balendin). . . . .	48
Mutil zar bati (Enbeita'tar Balendin). . . . .	49
Ariatza'ko «Garriko» (Enbeita'tar B.). . . . .	50
Gizontasuna zer dan (Deunoro). . . . .	51
Neskatilla «polita» (Deunoro). . . . .	52
Bizkargi (Deunoro). . . . .	54
Euskaldun bat Ameriketan (Iturri). . . . .	55
Gernika (Aldana). . . . .	57
Nere «pasaditxu» bat (Aldana). . . . .	58
Erregeak (Ireneo). . . . .	59
Usparitxa'ko auzunia (Ireneo). . . . .	61
Gogaiztoa (Lopategi). . . . .	62
Maitcmindua (Lopategi). . . . .	63
Zabal-alde (Enbeita'tar Jontxu). . . . .	64
Ariatza'ko kazeruak (Enbeita'tar Jontxu). . . . .	64

## LORA POLITA

Lora polita ontzian  
begiraten dodanian,  
orduak zaukat, ene maitia,  
neure goguan.

Txori polita kaiolan  
barruratzen dodanian,  
ai!, orduantxe zaukat, maitia,  
neure goguan.

Mutikotxua ikastolan  
il-illik sartzen danian,  
zeure gomuta bizi-bizia  
daukat goguan.

## USO ZURIA

Uso zuria, nora ua  
ortze zabalaz egazka?  
Mendi-aranak zuri yagozak,  
lats-iturriak leitu dozak.

Uso zuria, nora ua,  
gure lur ataz egazka?

—Aizkidetxua, zegaitik  
itun dagistak itaun ori?  
Mendiok dozak geure mendiak?  
Erri au ete asabena?  
Arren, itxeistak juaten  
ez ikusteko Ama ilten.

## GABON GABEAN

Gabon-gabeen oituten dogu  
guztiok apari ona:  
besigu, lebatz, makallu-saltza,  
bakotxak berak al dauna.

Gero txurrun plin-plan,  
ardau ta paitarra,  
katuak artuta  
zabu»-zabuka.

## GOIKO MENDIAN

Goiko mendian edurra dago,  
Errekaldian izotza:  
Ni zugandik azke nago-ta,  
pozik daukat biotza.

Ene lurralde, polit, ederra,  
Zu lakorik nun dago ba?  
Zeugaz beti bizi gura dot  
eldu arte eriotza.

## ILLUN-ABARRA

Illun-abarra:  
eguzkia asten da  
jetxitzen, jetxitzen,  
diz-dizera ederra  
zaiola gutxitzen.

Diamantezko printzak  
zaizkanian galtzen,  
urrezko bola baten  
itxuraz da jartzen.

Eta geldi-geldiro  
itxaspera sartzen.  
Eta geldi, geldi,  
eta geldi, geldi,  
eta geldi, geldi,  
itxaspera sartzen.

## TXALOPIN TXALO

Txalopin txalo,  
txalo ta txalo;  
katutxoa mizpila ganean dago;  
badago, bego;  
bego, badago;  
zapatatxo barrien begira dago.

## KUKUAK

Kukuak umeak  
zulo tikian,  
tiki tikian,  
oi! saratsaren gaiñean.  
Ámona neurea,  
ezkondu nai dut,  
adina dut betea;

nere lagunak  
egiñak daude  
goan den aspaldi aundian.

## AITAK EMAN DAUT DOTEA

Aitak eman daut dotea  
neurea, neurea *i*,  
urdeño bat bere umekin,  
oilo koloka bere txitoekin,  
tipula korda heiekin,  
tipula korda heiekin!

Otsoak jan daut urdea,  
neurea, neurea;  
axeriak oilo koloka,  
garratoiñak tipula korda.  
Adios neure dotea,  
adios neurea dotea !

## ATZO GOIZEAN

Atzo goizean goiz jagi nintzan  
birigarroa goizago ;  
birigarrpan txinta-soiñuan  
lo eiten dogu gozaro.

Eperrak kantatzen dau  
goizean bostetan;  
ez egon, neskatillak,  
mutillen pentzutan.

## ITSASOAN URAK ANDI

Itsasoan urak andi  
ezta ondorik ageri;  
pozik igaro nezazke  
nere maite ikustea gatik.

Itsasoa balitz esne,  
ontzia kristalezkoa,  
andreak ontziratzeke  
Birjiña Pilarezkoa !

Itsasoan laino dago  
Baionako barraraino ;  
maite zaitut maiteago  
txoriak bere umea baino.

## ATXIA MOTXIA

Atxiá motxia perolipan,  
nire semea errotan;  
errotara niñoiala  
topa neban asto bat,  
kendu neutsan buztan bat,  
ipiñi neutsan beste bat;  
errota txikiñak *hlin klan*.

Atxia motxia perolipan.  
nire semea errekan ;  
errekara niñoiala  
topa neban erbi bat,  
kendu neutsan begi bat,  
ipiñi neutsan barri bat:  
erreka txikiñak *plist plast*.

## BOGA, BOGA!

Boga, boga, mariñela,  
mariñela!  
Juan bear degu urrutira,  
urrutira;  
bai Indietara, bai Indietara.  
Ez det nik ikusiko  
zure plai ederra,  
plai ederra !  
Agur, Ondarroa'ko  
itxaso bazterra !  
Mariñela ! Boga...! Mariñela !

## TXAKUR GORRI TXIKI BAT

Txakur gorri txiki bat faltatu zait neri,  
arras ezkutatu da ta ezta iñon ageri.

Eztiot malediziorik bota nai iñori;  
artan baliatu dana ondo bizi bedi.

Manterola'ko errotan gizon abilla da ;  
nere txakur gorritxoak ark berak illa da.

Bere orrekin eskean or ibillia da,  
zerbait bildu nai badu ark familiara.

## ONDARRIBIA

Ondarribia, erri txikia,  
erdian plaza zabala,



**alargun batek or tman dauaka**

•derrak iru alaba:

zon, zon, zon,

Isabela, Manuela, Margarita,

zon, eta zon, eta zun.

Peru, larga ta jun,

Peru, larga ta jun.

Kortesiakin eskatu nion

bat eman bear zidala;

errespuesta aditu nuan:

«**mutil** pobrea nintzala».

zon, zon, zon, etc.

**Mutñ** pobrea, ba'nintzan ere<sup>^</sup>

zu okin baten alaba;

ogi berotan jango genduan

zurekin neure kabala,

zon, zon, zon, etc.

## TXORINUAK KAIOLAN

Txoriñuak kiolan

tristerik du kantatzen;

dualarik an zer jan, zer edan,

kanpua desiratzen,

zeren, zeren

libertatia zuiñen eder den!

«

Kanpoko txoria,

so'giok kaiolari;

ahal balin bahedi,

artarik begira adi,

zeren, zeren  
libertatia zuiñen eder den I  
Barda amets egin dit  
maitia ikusirik:  
ikus eta ezin mintza,  
ezta pena handia  
eta ezin bestia?  
Desideratzen nuke hiltzia !

### AURRA LO DAGO...

Ez, ni ez naz lo-gura ;  
kumatxoan bai daukat  
ene aur maitea,  
eta au kendu ezkerro,  
nire naigabea !

Kuma baxruan dago  
zapietan etzuna ;  
ta atea zabalik...  
Deslai dabil aizea;  
ta lapur gaiztorik...?

Ixil-ixil sartuta  
ostuko ba'leuskide  
ene izar goiz-zale,  
nok barriro itzuliko?  
Ez, ez naz lo-gale.

Ez begisl lo astunak  
begirik estal-azi;  
gelako argia  
jagon nai dot nik ernai,  
nun dan ene euzkia.

Emendik baten batek  
erpango ba'leuskit,  
—esan egidazu—  
biar, ai! nok lekarskit  
egun-argi-kusku?

Oi lo !, laga nagizu  
lorik baga, mesedez ;  
au ba'darostazu,  
goizean esnatzeko  
itsu gaixo nozu.

Ene aurtxo laztana  
ba'darostie, izan be,  
rnalkoz dot biotza;  
ta loak zelan poztu  
ene min garratza?

Ez, ni ez naz lo-gura  
gau aizetsu onetan.  
Nagon, ba, iratzarrik,  
maite-txingarra yatan  
aurtxoa zaindurik.

*Igotz*

## AURROI, LO...

Aurtxuoi, egik lotxo bat,  
emondo dauat gozua;  
aitak bat eta amak bi,  
ta Goiko Jaunak amabi.  
Lo!...

Lo, lo, gotzonen artian,  
ludi txatxarraz aitzuta ;  
zoriona Goian yagok,  
beian ez dok miña baiño.  
Lo!...

## BASATXORITXU

Basa-txoritxu mustur luziak,  
Ez jun Donoki'ra billa ;  
Aingerutxurik biar ezkeru,  
Orra or nire mutilla.  
Bere musua edurra da ta  
Sua biotz ta ezpanak;  
Berton urturik biziko dira  
Nire bularra ta zanak.  
Ai, nok leukezan urrezko orratza,  
Urre-miesa ta aria,  
Urrez asi eta amaituteko  
Seintxu ontzako janzkia!  
Larrosatxuak bost orri daukoz,  
Klabeledieak amabi;  
Gure umetxua gura dabenak  
Eskatu bere amari.

## ARDO GORRI NAPARRA

*(Gizona ardoaren alde)*

- I. A, a, a.  
Ardo gorri naparra:  
eztarriko lakarra,  
kentzen au den azkarra.
  3. A, a, a.  
Au den ardo bikaiña!  
Edan zagun nai aiña,  
naiz argitu bekaña.
  5. E, e, e.  
Ni ardoaren alde,  
goiz eta arratsalde  
beti naiz aren galde.
  7. I, i, i.  
I aut nere edari,  
ik jartzen nauk kantari,  
éta sarritan dantzari.
  9. O, o, o.  
Onek jartzen nau bero,  
eta sarritan ero  
edanaz egunero.
- II. U, u, u.  
Au den gure erregu:  
ardoa bear degu,  
naiz uda ta naiz negu.

*(Andrea ardoaren aurka)*

- Z,, A, s, a.  
Kontuz busti zintzurra  
jo nai ezpadek lurra,  
ta ausi lepa-ezurra.
4. A, a, a.  
Matsaren ur-sorgiña:  
gizonak edan-griña,  
ta andreak mitiña.
6. E, e, e.  
Edari etxe-kalte,  
nasaikerien ate,  
tabernetan alkate.
8. I, i, i.  
Matsaren zumu azti,  
griña txarren illati,  
osasanaren pipi.
10. O, o, o.  
Edari demonio,  
inpernuko jario  
pardel dan«n bizio.
12. U, u, u.  
Ur gorrizko olatu  
orrek au i ondatu,  
ta andreak asarratu.

*(Andro ta gizona batem)*

13. U, u, u.  
ATTIO madarikatu!

Gau-txorien tellatu,  
alper danen ostatu.  
U, u, u. i Ardo madarikatu !

## ARBOLA BAT

Arbola bat zan Paradisoan  
Jaunak apropos jarria,  
Mundu guztiak artu egion  
Lotsa ta itzal andia;  
Bere azpian bizitia zan  
Aita Adan'en gloria,  
Andik kanpora zer topau eban  
Ezpada negargarria?

Arbola santu aren azpian  
Bizi zan zeruan legez,  
Eukazalako atsegin danak  
Eta nekarik baperez:  
Ai! begiratu ba'leutsa beti  
Lotsa on eta itzalez!  
Mundua etzan gaur aurkituko  
Onenbeste atsekabez.

Arbola bat zan Bizkaia'n bere,  
Neure anaia laztanak,  
Zeiñen azpian pozez beterik  
Egoten ziran asabak;  
Kerizpe zabal artan jarririk  
Eginda euren batzarrak,  
Buztarri baga, nasai ta libre,  
Bizi ziran Bizkaitarrak.

Bere azpian umildu ziran  
Errege Gaztelakoak,  
Eta lekurik ez eben izan  
Sekula barriz moroak;  
Atzera gura ba'dogu izan  
Libre len giñan lakoak,  
Itxi daiguzan erdaldunentzat  
Erdaldun diran kontuak.

Aiztu daiguzan geure artean  
Izan diran aserreak,  
Izan gaitean anaia eta  
Euskaldun zintzo garbiak:'  
Gura dogula urtero batu  
Dei egitera bertara,  
Egin euskuna egin ebala  
Nausi zalako indarra.

Jakin begie bere ezpata  
Gaur bada biar eztala,  
Jakin begie sekula baiña  
Ez dala ilgo euskara;  
Arbola zarra il ba'zan bere,  
Seme bat emen badala,  
Eta zelan dan berau orritsu  
Eta besangaz zabala,  
Bere azpian zarren Batzarrak  
Oraindik ingo dirala.

*A rrese-Beitia*

## GURE ARBOLA GAZTEARI

Itxasoaren erditik iñoiz  
Farolen bati begira,  
Pilloto larri ibilli dana  
Ontzia salbau ezinda,  
Nekez ta larri zelan eltzen dan  
Nai eban portu ta errira :  
Modu berean ni bere nator  
Arbola onen azpira,  
Basamortutik gabaz ementxe  
Ikusten neban argira.

Leiak gogortu arren goietan  
Iñoz edurtza andiak,  
Urtzen ba'ditu ikutuagaz  
Eguzkiaren begiak;  
Zer egin daike gaur nire biotz  
Bigun ta argizagiak,  
Ikututean aurrean dodan  
Euskaldun izar biziak,  
Agertu baiño neure barruko  
Sentimentu zar guztiak?

Arantza min bat dot biotzean,  
Odei astunak buruan,  
Neure eztatari moteltxo onek  
Trumoe baten moduan,  
Adierazo daian nai neuke  
Tximistazoka munduan,  
Zelan oraintxe sartu garean  
Arbolearen ortuan,  
Edo obeto esan dagidan  
Euskaldun Paradisuan.



Jakin begie gaur Aretx onen  
Azpira batu gerala,  
Euskaldun zarren seme zintzoak  
Erdaldun bildurrik baga;  
Maketo batek emendik bota  
Egiñikoak bagara,  
Betor guraso zarren fedea  
Betoz aíaben legeak,  
Bere negarrak leortu daizan  
Ni jaio nintzan Erriak.

O neure erri maite-inaitea !  
Zakustaz triste negarrez,  
Zure alabak euren buruak  
Baltzez estaldu dituez,  
Trentza mardoak tiraka atera  
Ta sutara bota dabez,  
Gaur euskaldunak dirala orrek  
Ezin ezagutu leikez.

Isildu ziran neskaten kankak,  
Mututu artzain-txistuak,  
Zelai zabal ta jolas-lekuak  
Gaur dira basamortuak:  
Arroak beera, itxasoruntza,  
Doiazan errekatxoak,  
Gau eta egun txilioz dagoz:  
Ai, gara Gaztelakoak!

Bakarrik dakust pozgarritxo bat,  
Euskaldun amen fedea,  
Benturaz onek bigundu leike  
Jaungoikozko aserrea,  
Eta zerutik jatsi barrero

.Galdu zan libertadea,  
Mundua mundu bizi dakigun  
Gernika'ko Arbolea.

*Arrese-Beitia*

## UME EDER BAT

Ume eder bat ikusi nuen  
Donostia'ko kalean.  
Itz-erditxo bat ari esan gabe,  
Nola pasatu parean?  
Gorputza zuen liraiña eta  
Oiñak zebiltzen aidean.  
Politagorik ez det ikusi  
Nere begien aurrean.  
Aingeru zuri, pare gabea,  
Euskal-erriko alaba,  
Usterik gabe zugana beti  
Nere biotzak narama:  
Ikusi naian beti or nabil,  
Nere maitia, au lana!...  
Zoraturikan emen naukazu  
Beti pentsatzen zugana.  
Galai gazteak galdetzen dute,  
Aingeru ori nun dago?  
Nere maitea nola deitzen dan  
Ez du iñortxok jakingo.  
Ez berak ere, ez luke naiko;  
Konfiantza orretan nago.  
Amorio dun biotz oberik  
Euskal-errian ez dago.

*Iparragirre*

## NERE ANDREA

Ezkongaietan zerbait ba-nintzan,  
ezkondu eta ezer ez;  
eder-zalia ba'nintzan ere,  
aspertu nintzan ederrez:  
nere gustua egin nuen ta  
orain bizi naiz dolorea.

Nere andrea andre ederra **zan**,  
ezkondu nintzan orduan.  
Mudatuko zan esperantzarik  
ere, batere ez nuan:  
surik batere baldin ba'dago,  
maiz dago aren onduan.

Zokoak zikin, tximak **jario**,  
**aurra** zintzilik besoan;  
adobakia desegokia  
gona zarraren zuloan:  
im txikiko botella aundia  
•dauka berekin albuau.

Nere andrea alperra dago,  
ez da numduan bakarrik ;  
gauza gozoen zalea da-ta,  
ez du egin nai bearrik:  
sekulan ere ondo izango ez  
alakoaren senarrik.

Larunbatetik larunbatera  
garbitzen ditu zatar bi;  
bere aretxek berotutzeko  
**egur** erretan zama bi;

belaun bietan bana artuta,  
ez da ixiltzen kantari.

Nere andrea goiz jeikitzen da  
festara bear danean;  
buruko miña egiten zaio  
asi baiño len lanean.  
Zuxekin zer gertatuko zan  
nik bildurrik ez nuan!

*Ipmrragirre*

## LIMOSNATXO BAT

Mutil koxkor'bat itsu aurreko  
zuela aldamenian,  
gizon buru-soil, bizar zuri bat  
bi makuluren gaiñian,  
kale (i) ertzian ikusi nuen  
iñora ezin joanían;,  
ta bera nor zan jakin naiean  
inguratu nintzarian,  
limosnatxu bat eskatu zidan  
Jainkuaren izenian.

Zerbait emanaz galdetu nion,  
al zan modu onenian,  
jaiotzetikan al zeukan ala  
gaitzak artua mendian:  
Erantzun zidan: —Ez semia, ez,  
nik indarra nuenian,  
ez nuen uste iritxitzerik  
onetara azkenian...  
Gaur limosna bat e&katutzen det  
Jainkoaren izenian.

Eta jarraitu zuen esanaz:  
—Lengo gerrate denian,

ní aurren xamar ibiltzen nintzan  
beti edo geicnían;  
nekatu gabe, aisa igoaz  
aldapik luzienían:  
etzan burura asko etortzen  
gu ala gebiltzenían...  
gero limosna éskanitzerik  
Jainkoaren izenían.

Odola bero ,eta burua  
arrua dagoanían,  
edozein eran sartutzen da bat  
alako itsumenían:  
atsekabe ta negar samínak  
ba-datoz ondorenían;  
nola erabait batek bízía  
utzitzen ez duenían...  
limosnatxu bat eskatu biar  
Jainkuaren izenían.

Iñoiz pentsatzeñ nere artían  
ní jarritzen naizenían,  
gaur ere asko dirala joango  
lirakenak zuzeníari,  
ez luke iñork síñístatuko  
zer pena ematen didan.  
Ai!, orla nintzan ní erc sendo  
ta gazte nenguanían...  
Gaur limosna bat eskatutzen det  
Jainkuaren izenían.

A!, txorakeri asko egiten  
da zentzurik ez danían;  
síñísta zazu ur au pasía  
daukanaren esanían:  
obiago da, garai dan arte,  
alegintzía lanían,  
negar egiñaz ibilli gabe  
gero denpora joanían...  
limosnatxo bat bildu eziñik  
Jainkuaren izenían.

maitiago degu, anbat:  
emen ez dago Bidaso'rik  
ta beste trabik an ainbat;  
bizi bedi: «ZAZPIRAK BAT»,  
Ama maitia indartu dedin.

*P. M. Otaño*

## IKUSTEN DUZU GOIZEAN

Ikusten duzu goizean  
argia hasten denean,  
menditxo baten gaiñean  
etxe txipitxo aintzin xuri bat  
lau haitz ondoren erdian,  
xakur xuri bat atean,  
iturriño bat aldeán?  
Han bizi naiz ni bakean.

Nahiz ez den gaztelua,  
maite dut nik sor-lekua,  
aiten aitek hautatua.  
Etxetik kanpo zait iduritzen  
nonbeit naizela galdua ;  
nola han bai-naiz sortua,  
han utziko dut mundua,  
galtzen ez ba'dut zentzua.

Ez dugu behar lurrean,  
ongi bizirik etxean,  
utzi laguna gosean.

Ez du beharrak sekulan jotzen  
gure etxeko atean,  
non ez duen mahainean,  
leku bat gure aldean.

Ene andrea Maria  
ez dan andre bat andia,  
baiñan emazte garbia ;  
irri batentzat ba-dut etxean  
nik bear dudan guzia:  
gald'egiten dut grazia,  
dvidan bezela hasia,  
akabatzeko bizia.

*Elizanburu*

## IRRUNDIK IKUSTEN DUT

Urrundik ikusten dut, ikusten mendia  
zeiñaren gibelean baitut nik erria.  
Jadanik dut aditzen, zorion andia!  
ezkila maitearen asperen ezta.

Ezkila, zer ote duk ik egun erraiten?  
urrunera zer berri ote duk egortzen?  
Mendiek edoi-petik dautek ihaidesten,  
ik errana zerura ditek garraialzen.

Landako langilea, artzain mendikoa,  
iturriko bidean doan neskatoa,  
aditurik, ezkila, hire boz lainoa,  
otoizten asi dituk Ama zerukoa.

Nik ére dut otoizten Birjina Maria,  
bas-errietan galdu aurren gidaria,

neretzat otoi dezan ardlets grazia  
bozean kausitzeko nik egun erria.

Mendiak utzi ditut urrun gibelean;  
erria dut ikusten jadanik aldean;  
zer duk, ene biotza, saltoka barnean?  
ote duk uts eginen errira eltzean?

Agur, agur, erria! Agur, sor-lekua!  
agur, neure aurreko lcku maitatua!  
Jainkoak aditurik aur baten oiua,  
ire gana duk aur bat egun urbildua!

Mendiaren egitik artuz bazterrera  
iduri xingola bat aldapa behera,  
bidexka, hi zuzen aiz jausten zelaiera,  
zuzen ereman nezak ahaiden artera.

Bide hegiko aitzia, bortz aldiz aurrean,  
igandetan mezzatik etxera sartzean,  
bai bortz aldiz jarri nauk, amaren aldean,  
ire adar andiek «gin itzalean.

Baratze gibelesko elorri xuria,  
beti duk begiratzen aurreko tokia ;  
ik bezela zertako, aldaska garbia,  
nik ez dut sor-lekuan igatzen bizia?

Bainan nere begitik nigar bat da jausten...  
bozkarioak darot biotza gaingitzen...  
etxekoen boza dut jadanik aditzen...  
Jainkoa, darozkitzut eskerrak biurtzen!

*(Berriz erritik urruntzean)*

Ezkila, berriz diat biotzean pena,  
erritik urruntzean bakotxat duena;  
neretzat ik baihuen jo lehen orena,  
agian ik orobat joko duk azkena!

*Elizanburu*



# MUTIL ZARREN BIZITZA

Dozena bat bertso berri,  
gaztien kontsolagarri,  
nere mingaiña sano dan arte  
nai nituzke jarri;  
begiratuaz alkarri,  
andrerik ezin ekarri,  
mutil zarren despeira zer dau  
esango det sarri.

Egon zaitezte aditzen  
zaartuta nola gabiltzen,  
gazte denboran ezkondu gabe  
errez da gelditzen;  
ajiak zaizkit berritzen  
eta indarrak urritzen,  
orain jarri'naiz soldata gabe  
anaia serbitzen.

Anaiak nauka mendian,  
koñatak aldamenian,  
gazte denboraz akordatzen naiz  
sasoia juanian;  
ez det gularik janian,  
gau ta egun beti lanian,  
ondo egin ta' esker gaiztua  
gero azkenian.

Iñork nai badu ikusi,  
nere librua ikrtsi.  
nekia' pranko, esker gaiztua  
ta alimentu gutxi;  
anaia daukat nagusi,  
indarrak juanak igesi,  
ontaz aurrera oien mendian  
biarko det bizi.

Ezurrak zaizkat gogortu,  
belarriak oso gortu;

modu onetan mutil zarrar\*B  
inbiriak nork ditu?  
Andrerik ez nuen artu,  
orain anparo biartu,  
praile naitare ezin niteke  
komentuan sartu.

Koñatak nauka arrotza,  
ura emendik orruntza,  
lanak eginda csker gaiztua  
ta alimentu otza;  
soldata gabe morrontza,  
begiratua zorrotza,  
animosua ez dago mutil  
zarraren biotza.

Lenago erromerian  
dama «raztien erdian,  
jira ta buelta ibiltzen nintzan  
fanfarroikerian;  
orain tristura begian,  
nago estado urrian,  
pipa bát artu ortzian eta  
suaren guardian.

Orain galdu naiz ederki  
nierezi baiño obcki,  
ueskatxak eie ez dirate nai  
aterik iriki; gaztiaguak izaki  
ba-dute milla ailzaki.  
Istimazio txarra nola dan  
mutil zarrak ilaki.

Mutilla bere zarriau  
neskatxakin indarrian,  
egun guztian oien pardelak  
nere bizkarrian;  
gero illunabarrian,  
istimazio txarrian,  
ibiltzen naute soñeko galtzak  
kendti biarrian.

Mutil zarraren pobre\*«  
ifiork ikusi nai eza,  
eskarmentua ducnik bada.  
kondidera beza;  
auxen da nere bajeza,  
nork izango ez du pereza,  
illobarentzat utzi biarra  
bere interesa?

Nik daukadan ganantzia  
ba-dago zeñi utzia;  
bi alkandora, galtza pare bat,  
anaiak autasia;  
au da esperientzia,  
munduko diferentzia,  
imitil zarrari tokatzen zaio  
olako jantzia.

Orra illoba gaztiak,  
mutil zarraren trastiak,  
irabazirik ez du izango  
oiekin sastriak;  
zimurlu zaizkit estiak,  
begiak dauzkat tristiak...  
Eskarmentua izan zazute  
nerekin', bestiak.

*Xenpelar*

## MOSKORKERIA

Urte gutxian jarri gera gu  
biurrikeriz beteak,  
Edari bidez askok dauzkate  
lotsa guziak boteak.  
Gero ondorenak izaten dira  
negargarri ta tristeak,

Bertsoen bidez ikus ditzagun  
Ooo... aberkide maiteak!  
Moskorkeriak gure Iurrean  
egiten ditun kalteak.

Ordu batzutan purrukatzen du  
aste guziko eltxorra,  
Beti egarriz nola baitagon  
bustitzea derriorra;  
Ankak narrastu, burua galdu,  
oiuz mingain ustelkorra;-  
Iñork ematen dion artean  
nunai utziko du zorra...  
Etxe ta errien ondagarria:  
ori da gizon moskorra !

Moskorrak eztu gauz onerako  
iñoiz izaten denborik,  
Edaria du bere maitea;  
ezta arentzat alakorik!  
Familiako guraso bada,  
zer dezu makurragorik!  
Ez izan andik ondoren onik  
aterako dan asmorik,  
Gaitzak jotako zugaitzak eztu  
emango frutu prexkorik.

Gazte artean zer gertatzen dan'  
esan liteke txit xamur,  
Alkar arrotzen dute bapo ta,  
lengo kezka danak agur!  
Tragoxka batzuk edan ezkerero  
ezin egon b>"ij-makur...

Lenago gizon egin gabeak  
or búrutzen zaízkgigu aur,  
Arrokerizko a'anez ere  
asko moskortzen dira gaur.

Izketa txarrak, birau zikiñak,  
indar artzen dute gogor;  
Oitura txarrak jabetzen dira  
uste gabe, emen da or.  
Etxe goseak pakerik eztu;  
an iñor eztabil jator!  
Itzal guziak galdu ezker  
griña txar danak saltakor,  
Sukalde askotako negarra  
sarritan ontatik dator.

Bearrezko da ta argatik dauka  
Jaunak guretzat jarria,  
Zentzudun batek eztu esango  
txarra danik edaria.  
Orretzek ase bear du beti  
gizonaren egarria,  
Gorputzari ez ukatu baiña  
artu deiogun neurria;  
Gaiñezka ibili bear ba'degu  
galdu zan Euskalerrria!

*Basarri*

## EGIPTO'RA

Arre, arre, astotxoa, arre, arre, kon, kon!  
Arre, arre, Ejipto'ra béar degu jon jon...  
Atzetik gizon gaiztoak  
\* zorrotzik beren aiztoak...

Arre, arre, astotxoa, arre, arre, kon, kon!  
Traka, traka, axkar-axkar, bear degu jon jon.  
Umetxoen garraisiak  
. bai estu eta larriak!

Arre, arre, astotxoa, arre, arre, kon, kon!  
Traka, traka, bixi-bixi, bear degu jon jon...  
Ama gaxoen negarrak  
aizkatu ditu baztarrak.

Bidean ereille bat...  
—Aizazu, gizon:  
Ejipto'ra bidea  
nundikan dagon?

—Atozte, atozte;  
emendik zuzen-zuzena..  
begira, begira,  
lurgorri ortan barrena.  
Goiko Jaunak ordaindu bizaitza...  
—Bera da ordañik oparoena.

Arre, arre, astotxoa, arre, arre, kon-kon!

Barruan Maria ta  
Aur maitagarria;  
irurok auzpezturik  
ta kutxak zabaldurik  
eskeni berria.

Beltxor'ek urre gorri;  
Kaxpar'ek kekiña;  
Aurak Baldaxar'ena  
onetsi du geiena:  
mir-ale min-miña.

Trakatan, trakatan, iru Errege  
trakatan, tTakatan, Sorkaldera,  
Jesu jaio dala ume guztiai  
Irakata, trakatan, esatera.

lesu jaio dala ume guztiai  
trakatan, trakatan, esatera;  
ta txintxo diranai zapatatxuan  
jostailu politak ematera.

## BIOTZ-LILIA

Ene lilitxo, lilitxo maite,  
Zergaitik orren alaitsu?  
Burrin-burrunka albo yabiltmn  
Listor baltza ez dakuzu?

Goiz dirdiratsu batez, lilitxo,  
Zuri begira nenguan,  
Ikar urdiñak ortze-barnera  
Agertu ziran orduan,

**Zein aratz eta eder zengozan**  
Lurrin gozoa ixuriz!...  
Udabarriak esku samurrez  
Apaindutako soin zuriz!

Gizaren arnas legun-eztia  
Jostati zure gaiñean...  
Ta zuk, lilitxo, lilluraturik,  
Parre alaia zengian.

«Lillitxo maite», —niñoan neugan—  
«Zu bai egitan zoruntsu!  
Nok leukaken, ai! biotz-lilia  
Zu baizen garbi, baretsu!

Zelan zugandik begiok alde  
Orren maitakor baitzara?...  
Eda egizu lurrin gozoa,  
Eda irri-parrez zerura».

Ba-yoian Euzki Erregin,  
Urdin zabala gaindurik...  
Ta zu, lilitxo, zelan zakust? Ai!  
Baratz-ertzean... zimelik!

Begira neban neure barnera,  
Ta an, igarturik, zakust **zu**,  
Biotz-muñeko lili!... negarrez  
Begiak yataz lausotu.

Biotz-malkoak, maite-malkoak,  
Barne-lili zurillari...  
Biotz malkoak, **maile** malkoak.  
Zatorkidaze uaari!

*Artadi*



## AMARI AGUR

*(TJrte birekirv)*

—Amatxok lan asko,  
ene aurtxoa.'

Ona emen zutzat  
bigun-arroa  
aingeru lumazko  
seaskatxoa...

Nere Juliantxo  
biotzekoa,  
ortxe oin etzinda  
egin lo-loa.

—Ama, ama, ama,  
maite txintxoa,  
ez utzi bakarrik  
aurtxo gaxoa...  
Edcr zait bai neri  
seaskatxoa  
bigun, xamur, garbi  
eta beroa.  
Alare egiteko  
ameg goxoa  
natago det zure  
biotz-ondoa.

—Juliantxo maite  
egin lo-loa...

—Amatxo, naiago  
biotz ondoa.

*(Amaika urtekin)*

—Mitxeleta polit  
egakalari...  
iges naian zabiltz  
zure amari.

Aztu al zaizu ba  
aztu, oi!, zuri  
amagan zenduan  
maitezko kabi?  
Nora zuaz, ene  
semetxo ori?

—Maite nuan maite  
seaska txuri  
cta maiteago  
biotz-ondo'ri.  
Baiña barne deika  
det Andre Mari...  
Jarraitu daiodan  
ZERU-DEIARI,  
fiiiian onspena  
Juliantxori.  
Esan arren, ama:  
«Seme, jun ari».

—Amaren biotza  
maitezko kabi.  
MaTe igesi  
^ure amari...

—Ama, egiteko  
lo lo goxua  
naiago nun zure  
biotz ondoa.  
Baiña orain deika  
nik Andre-Mari,  
esan, arren, ama:  
«Seme, oari».  
Zure... onspena  
JULIANTXORI.

*Dunchtn-zar*

### AIZE-ERROTA

Aize-errota lirain,  
zein polita zera,  
raendiska orren gain,  
eguzki aldera.

Aize-errota lirain,  
berrari ekin;  
errotaria zain  
dago. Arin, arin!

Egiguzu irin  
fin gure ogia  
zuri izan dadin,  
errota maitia.

Aizea joçtatzen  
zure egoekin.  
Ez iñoiz atsedan:  
ek<sup>m</sup> arin, ann !

*Dirauket,*

## POBREAK POBRE

Asto-zai zegon aguretxo bat  
pozik zelai-barrean,  
menditik bera lapur-taldea  
ikustatu zuanean.

Estu ta larri asi zitzaion:  
«Goazen egiñalean,  
biok erori ez gaitezen gaur  
lapur gaiztoen menpean».

Belarri biak ernai jarrita  
astoak diotsa lasai:  
«Zuk, nai ba'dezu, egin igesi;  
ez egon emen nere zai.  
Zurekin joan, oiekin geldi...  
asto bearko det nik bai...  
obetotxo ez izatekotan  
ez det' igesik egin nai».

*Artu dezagun ondo gogoan  
astO' zurraren egia:  
Nolanai ere pobreak pobre  
bearko dula, aiegia.*

*A. Fidel*

## TXAKUR ZINTZOA

Iñoiz ez ta bein koipekeriz ta  
txurikeriz datorrenak  
atzipetuko ditu, bai, noski  
ergelak eta kirtenak;

baiñan naiko lan izango luke  
engaiñatzen azkarrenak.  
Garbi ikusiko dute orixe ,  
aú irakurtzen dutenak:

Bere lanera gau illunean  
ixil zetorren lapurrak,  
zaunkik egin ez zezan, atean  
lotuta zegon txakurrak,  
urrutitikan bota zizkion  
ogi-puska ta ezurrak.  
Ara orduan zer esan zion,  
arro-arro, txakur zurrak:

«Arritzekoa, bazka-eskeinka  
zu gaur emen ikustia;  
iñolaz ere lan onetan au  
dezu lenengo aldia!  
Ondo dakit nik zer nai zenduken:  
zaunkarik ez egitia,  
lan aundi gabe eramateko  
nai zendukean guztia.  
Siñistu zazu oker zaudela,  
lapur lotsarik gabia:  
Ez det ain merke nik beintzat saltzen  
nere jaun eta jabia ! !!»

A. *Fidel*

## GABON-GABA

Au bai gauaren zoragarria,  
Gaur emen gure etxean:  
Zar ta gazteak alkaturikan  
Anaitasun ederrean,  
Belen aldean aingerutxoak  
Agindu zuten pakean.

Zeruko Jaunak gorde dezala  
Alkertasun au gurean,  
Ta berriz ere batu gaitzala  
Datorren Gabon gabeen.

*Aita F*

## KALAMUA

Zer daukat begi aurrean  
Gipuzku-Bizkai erdian  
Etxebarri'ren buruan?  
Kalamu mendi zoragarria,  
euzkal mendien artean,  
eguzki begi goizian, '  
urre dirdiraz janzkeran  
zer dago gain eder ortan?

Zelai orlegi garbia  
bedar gurenez betia

## MIRUA TA AMILOTXA

O zein ikusgarri dan  
masti-sail bat ona,  
mats ori-lara-zuriz  
beterik dagona !

Txirta bati goiz baten,  
txio-txioketan,  
amilotxa asi yakon  
onantxe berbetan:

—Adiskide kutuntxu,  
amilotx ederra,  
kerizarik ez al dok  
sartu sabelera?

—Sarritxu oi dabiltzan  
txoriak mastian,  
ega-astun sorrak dira,  
ak erantzun eutsan.

Mats-zale dozak erroi  
ta 'eskilasotzarrak.

. Nok entzun, kanta ordez,  
euren karraskadak?

—Atorkit, eder ori,  
keriza-adarrera ;  
jan, jah aspertu baga  
anpolai urmela.

—Keriza-azurrak saman  
egin ezkerotxut,  
, nok atara, laguna?  
Egingo al daustak euk?

Miru zelatariak,  
estutuaz saman,  
amilotx gaixoari  
au erantzun eutsan:  
I txikitzeko aiña  
ba-nok ni benetan.

*Orrenbeste jaza da  
gure gizasrteam,  
anéikiak txikia  
sarri lumatzeaw.*

X.

## TXARRIZAIÑA

Egunero nekusan mutil gaztea  
Oian izillean txarriak zainduten;  
Aurretik darabil zintzoki taldea,  
Arkaitz, troka, larra, muna, landa barren.  
Ezkurraz an goian, aizeaz biraka,  
Areitz sendoctan, orrien tartean;  
Larrean arriak, orbela, sastraka,  
Txarricn janari urria. benetan.

Eta aberetxoak janaria eska,  
Nunbait billa bear lurrean ezean;  
Goseak larritu, sabelak ez parka,  
Txarrizaiñarentzat istillu betea.  
Aga luzetxoak eskuan arfurik,  
An dabil mutllla ezkurak jaurtika;  
Saietsak ebaindu, gorputza urduri,  
Biotza neketsu, gogoa jausita.  
Zeregin orretan besoak askatuz,  
Zugatx kerizpean etzun zan mutilla,  
Loaren altzoan laster sartu yaku;  
Baiña, lo aurretik, ez egon izilla.  
—Jaungoiko Altsuak etzitan egin  
Arazo guztiak artez eta zuzen;  
Ezkurak an goian, zetako imiífi?  
Kalabazak, barriz, lurrean usteltzen?  
Txarriak jateko gauza diran zerok,  
Imiñi balitu lurrean eskura,  
Arek oianera ekarri ezkerok,  
Ariña litzake gaur nere estukura.  
Kalabazok ausa, elégokez goian,  
Emen bean baiño askoz egokiro?  
Ta gogai onekaz artu zuan loak;  
Aizea bertotik, txistuz bíldiarkiro.  
Zugatzen adarrak, bein ona, bein ara,  
Indarka ta uluka igituten ziran,  
Ta, ezkurtxo batek, aizeak boladan  
Jaurtirik lurrerantz, jo zun bekokian.

Txarrizaiña itxartuz, asi zan esaten:  
—Ezkurra izan ordez ba'litz kalabaza,  
Ederto nengoke oraintxe jasaten  
Onen sartadea min biziz alaka.

*Arrugain*

## GIPUZKOA'KO LUR MAITE

(*Montañas de Guipúzcoa lez abestuteko*)

Euskal zeruetako  
Illargi zurbil,  
Gozo, biguna,  
Aldendu maitekiro  
Gure aldetik  
Uluntasuna.

Argiru, maitasunez,  
Gure mendiak,  
Gure basoak;  
Gartu gure biotzak,  
Bizkortu, arren,  
Gure gogoak.

Gipuzkoa'ko lur maite,  
Euskalerra'ko lora ederra,  
Euskaldunak illarte  
Ezta galduko zure izena.

Itxas-mendi tartean  
Bakez bizitzea,  
Nere biotzarentzat  
Ezta munduan poz ohea.

*Arrugain*

## MAITE

(*Vuelve tu imagen bella lez abestuteko*)

Biotzaren amesak  
Ito guraz nabil,  
Barrengo maite-miña  
Gogoak ezin il.  
Egunez eta gabaz  
Maitagandik urrin,  
Beronen gomuteak  
Bakarrik narabil.

Maite, zure begiak  
Nere gogoan sartu ziran;  
Ez egizuz aldendu  
Bizia galdu eztagidan.  
Maite, alkar gaitezán,  
Ez egin alde nere ondotik,  
Zure maitasun gabe  
Eztot aurkitzen zorionik.  
Maite, maite, maite.

*Arrugain*



*PrcH.sk.uik.*—Neskatxa gazte eta mizkea  
 eta milloi bi laurleko  
 beraz dituan neskatilla bat  
 nai neukek emaztetzako,  
 ezeren bere kezkarik barik  
 oparo bizi izateko.  
 Baldintza onek dituanagaz  
 nor, baiña, ni baiño obeto?  
 Beti aukeran, an-or naiz emen  
 nintzakek' zorioneko.

*Pellok.*—Neskatxa gazte bikain mizkea  
 eta gaiñera milloi bi!  
 baldintza orrek izan oi dozak  
 askoren atsegingarri.  
 Milloi bidunak... banaka bat bai,  
 gazte mizkeak ugari...  
 baiña egizko garbi ta onak  
 nonnai eztozak agiri;  
 oneitáko bat irea baiño  
 atsegiñago yat niri.

*Epaia.*—Ludi zoroan makiñatxu bat  
 ba-yabilk diru atzian;  
 baiña zorion osorik ezin  
 lortu diruaz utsian.  
 Gure Jainkoak damoskanagaz  
 pozik ba'daukak biotza,  
 eu izango az orain ta gero  
 egiazko aberatsa.

*Enbeita'tar Kepa*

## TXOMIN ETA MATXALEN

(*Praisku'ren otseiñak*)

*Txoniin'ek.*—Neure aldian egiten yuat  
Ainbat abere jateko,  
Asti apur bat ez daukadala  
Apur baten be jarteko.  
Beti onela ibilli barik  
Ixango neuke obeto  
Neure lanetan lagundu daistan  
Emazte on bat ba'neuko.

*Matxalen'ek.*—Erdi bakarrik zabiltzaz, Txomin,  
Abere jatekogiñan,  
Eta ni barriz oial garbitzen  
Beti al dodan ariñan.  
Diñozun lez ba emazte billa  
Neugana eldu ba'ziñan,  
Bata bestai lagunduteko  
Biok buztartuko giñan.

*Txounin'ek.*—Luza begira etzara egon,  
Neure lagun, agintzeko;  
Baiña ez dakit indarra dozun  
Itz eder ori zaintzeko.  
Aspalditxoan tentezka nabil  
Andra koskor bat artzeko ;  
Baiña bildur naz izan ez daidan  
Neure burua galtzeko.

*Matxalen'ek.*—Zer erantzun be ez dakidala  
Ipintzen nozu bildurrez.  
Zeure burua daukazu aintzat

Eta besterik iñor bez.  
Ezkonduteko bildurra dozu,  
Ta ein barik egon nai ez.  
Baiña paltarik iñun bakorik  
Ez dozu topauko errez.

*Praisiku'k.*—Bat baiño geiau ibiltzen dira  
Gure Txomin'en antzera.  
Aberats eder onaren billa  
Jo batera, jo bestera,  
Usterik ori errez lortuko  
Dabela; baiña, bai zera!  
Oiñetakuak urratu eta  
Buruko miñaz etxera.

*Enbeita'tar      Kepa*

## BEI ZARREN BERTSUAK

*(Kepa, Imanol eta Xanti)*

*K.* Komedi-tokia da  
gure okoillua;  
beiak adarrak dantzan  
ta ik akullua.  
Bi alditan or abil,  
mutil kankaillua,  
esnez bete eziñik  
eure katillua.

*Im.* Ni baiño geiago dok  
bei zar au indarrez,  
ostikoka eiten yok,  
esnerik ezin kendu  
gaiñera adarrez,  
ta eu ortik barrez...

Pazentzirik artzen gaur  
etzeukoat errez!

*K.* Esnia zelan kendu  
etxeko danontzat  
eskatzian euki dok  
plana bestientzat.  
Orain, neure ustian,  
palta dok euretzat.  
Ori dok itxuria  
mutil gaztientzat.

*Im.* Matusalen baiño be  
zarragoko beia,  
trabes iminten yaustak  
gaur neuri begia.

Askan izanagaitik  
naiko janaria,  
atzeko ostikua  
dauko dantzaria.

K. Bi alditan asi az  
esnia batzian,  
bietaa katillua  
dok erdi utsian.  
I baiño abillaurik  
ezpadok eltzian,  
dantzan ingo yok orrek  
okoillu ertzian.

Im. Argimutil on barik  
postien onduan  
ator ona ikusten  
zer moduz naguan.  
Urreratu ezpanintz  
askoz obe neuan,  
ostikuaz jo naiok  
belaunen buxuan.

K. Esne batzen asi az  
arro eta maiñez,  
iñori burletakoa  
uste alegiñez.  
I az niutil abilla  
bakariik mingaiñez,  
bei zarren ostikuak  
eraiteko iñes.

Im. Barriketia-beintzat  
ik bai-dok naikua.  
Euk firatzi nai ba'dok,  
emen yauk lekua;  
urreratu ezker  
errora eskua,  
adarrak dantzan dabilte,  
zoli t.stikua.

K. Nnn-nai erakusten dok  
abillaren an.Ua;

iai.it batzén barriz,  
aparteko yaza;  
bizkor eta garbiro  
neurriak gorantza,  
amak bai yeukak laster  
piixer aberatsa.

Im. Segurutik jarrita  
gaur edozer diñok; .  
«neuk eratziko yuat»  
alan bere eztiñok;  
zikintzeko bildurrez  
esku guri piñok,  
euk adarra jo eta  
lana barriz, iñok.

K. Mutillen piñezia  
orraitik agiri dok  
esnez janaritzeko  
etxeko guztiok.  
Gaiñezka jarri ditu  
dirian ontziok...  
Lar kendu barik, mutil,  
pizka bat itxiok!

Im. Gaztiak ezin leike  
ezer zarrarekin,  
ernegau erain deustak  
gaur eure koplakin.  
ba-naiuak katillu  
ta pitxer onekin;  
or daukok, ba, lekua  
euk nai ba'dok egin.

(Xanti, onai *txiki*enak *tuka-*  
*tik*:)

Lau bertsolari dagoz  
gaur gure etxien,  
bat askan ta bi gortan,  
aita eskatzien;  
Manu'k zintzo diñerdu  
efoia- batzien,

koplak ugari baiña  
pítxerra utsien  
bsnezko apanrik

etzauk arratsien!

(1902)  
x

*Enbeitam*

*K*

## BERTSOLARIA

Bertsolariak atarateko,  
zein da biderik onena?  
Lenengo euki biar dabena  
berezko etorkizuna;  
gero ikasi, sarri abestu,  
ez galdu zaletasuna:  
bertsolaria izan leiteke  
ori egiten dabena.

Bertsolariak ona izateko  
baldintz onek bear ditu:  
buru argia, biotz zabala,  
nai ba'dau ondo jarraitu.  
Irugarrena eztarri ona,  
neurriai ondo begitu,  
bertsolaria ona izango da  
baldintza onek baditu.

Bertsolariok gura ba'dogu  
goratu gure izena,  
toki danetan agertu daigun  
egizko gizontasuna;  
bertso lizunez ez daigun loitu  
euskeran edertasuna,  
oba «txian ixilik egpn  
garbi-zalia ez dana.

Berba gitxitan emen esanda  
bertsolari izakera,  
gure izena goratuko da  
garbi zaintzen ba'gera;  
maitasun sendoz, biotz zabalez,  
jokatu daigun batera;  
toki danetan zabaldu daigun  
Aitor zarraren enskera.

*Enbeita'tar B.*

## MUTIL ZAR BATI

Bertso batzuek jartera noa  
jakingo dozue nori:  
berrogei urte ncska atzian  
dabilen mutil zar bati.

Neska ondoti  
igeska beti,  
eurak dakie zer gaiti;  
au gizontzako artzeko baiio,  
isteko obia dirudi.

Gozotasunik ez dauko onek,  
neure ustez, emakumentzat;  
onen biotzan maitasun asko  
ez da izango andrientzat.

Neskak onentzat  
biirua aunditzat,  
gorputza barriz edertzat;  
gura izan asko ez dabe izango  
alango mutil zarrentzat.

Falta dabena billa ibillita  
ori da bide zuzena

zuzendari onak dauz  
orretarako:  
Ajuxia'tar Kepa  
lendakaritzako,  
Pedro Mari Aldana  
gauzak alontzeko.  
Bextsoetarako  
naiz abestuteko,  
noz gorau joango  
asko deika dago.  
Zorionian sortu  
gendun «GARRIKO».

Ariatzan sortu zan  
uGARRTKO»'n ize.na,  
erri eta erbeste  
nintzat daukana.  
Aslcoren pozgarri da  
egiten 'daun lana,  
anaitasuna dogu  
berak nai dabena.  
Gauza ederrena

ariatzarrena  
ikusten doguna:  
danon batasuna.  
Orixe da «GARRIKO»'k  
gura dabena.

«GARRIKO»'ren deiari  
ondo begiratu  
eta beren esanak  
gogoan artu.  
Erri ta, erbeste  
euskalclun jokatu,  
cuskal eitura danak  
ez iñoiz baztertu.  
Gogoak askatu  
ta hi'otzak poztu,  
erriak berbiztu  
iñok jiiii ba'ditu,  
Ariatzñ'ko guxe  
«GARRÍKO»'i deitu.

B. *Enbeita*

## GIZONTASUNA ZER DAN

Gure izatea zati bik dauka  
soin-gogo erdibituta,  
gogo gorantz-min bizi dala,  
soiña lurrari josita.  
Bitzuok (alkar bide zuzenez)  
erabiltea alkartuta  
dot gizontasun oiñarritzean  
ezaugarritzat artuta.

Gogo ta soiñok, Jaunak jarriak  
dabez bakoitzan legiak,  
gogoak zero-egarriz gorants

jasoten ditu begiak;  
bestalde, soiñak, lege guztiak  
ditu lurrari josiak  
uko eziñak yakozala oni  
gorputzaren eskariak.

Baiña gizonak, gizontasuna  
nai ba'dausku erakutsi,  
gogo ta soiña, batera alkartu  
bear.,ditu t'ez ezetsi;  
gorputz-egarri ase-goxoak  
goguarena'rren itxi.  
Ukatze onek sendotzen dautsa  
gizontasunaren pitxi.

Jaunaren lege, goitik beraiño,  
onartuz bete dabena,  
ludi ankerrai, irrikor arren,  
uko egiten dautsana,  
geidea'gaitik bere bizitza  
nai-noz emongo leukena,  
da egiazko gizontasuna  
soiñean daukan gizona.

*Deunoro*

## NESKATILLA «POLITA»

Sarritan ametsetan  
jartzen naizenian,  
ikusten zaitut polit  
aarean aiñian;  
aure ederrak ejstaul»



**baidiñik** lurrian,  
iruditaen yat **neure**  
**aurrez** zauzarian.

Zure aurpegi eder!  
ta begi urdiñak  
**mosu** gorrixta, gordin,  
edur lez **agiñak**;  
**ule mataz** beltzeran...  
sur, belarri fiñak.  
Zelan daukazuz, baiña,  
ain polit egiñak?

Gorputzak eztauka, **ez**,  
beste iñor bardifiik,  
ugatz apaiñak tinko,  
neurrian jarririk;  
me ta dotore garriz,  
ondo apaindurik,  
zu ain eztauka iñork  
txorkatilla fiñik.

Kanpoz ain eder izan,  
t'ez al **zara barruz**  
itxusi izango oben  
ixilleko erruz?  
Ain polit ba'zintzakez,  
nik nai lez, ereduz,  
nire ametsak labur  
litzakez zu buruz.

*Deunoro*

## BIZKARGI

Amaika alditan pozik,  
azkar ta bakarrik  
ikustatu zaitut ta...  
zure tontorretik  
atsegiñez begira  
maiz, gogaitik barik...  
Izan be ez dago ifiun  
zu lango mendirik.

Giza-bizitz-tokia  
goruntza ezkeru,  
bakea dau edonun.  
Mendiak oparo  
bere esku zabaletan  
artzen nau emero...  
Ai, al'banu etorri  
ona egunero!

Euskal tontor askrik I  
daukazu kurutza,  
inguru bedar-lorez  
egiñik baratza ;  
kilker otzanak *kri kri*,  
iper aizez dantza;  
zugandik ur nabari dot  
donokiko atsa.

Ain ederra izanik  
mendiko bakia  
ez da mire egiteko  
sarritan joatia.  
Atsegin bayat eder •

billaka ibiltin,  
etzaitut aztuko zu,  
Bizkargi maitia.

*Deunoro*

## EUSKALDUN BAT AMERIKETAN

Euskalerritik egin biar dot  
Amerikara igesi:  
toki onian gu jaio arren,  
danok ezin gara bizi.  
emengo antzian zorionian  
an be ba'gintzake bizi!

Ameriketean, beti goguan •  
izangot euskal erri,  
toki onetan daukagulako  
geure izkuntza garbia.  
Zorionian maite izan dot  
beti nik Euskalerria;  
ara joan arren Euskalerrian  
isten dot biotz guztia.

—Nora zatoz zu Euskalerritik,  
ain toki ona itxirik?  
Ez uste gero odeietatik  
jausten, danik gaur dirurik.  
Emen be iñoiz alperrenlako  
ez dogu izan lekurik;  
baiña zu lako euskaldunari  
ezingo esan ezetzik.

Agur, etxeko aita ta ama,  
»nai arreba danori;  
zorionian lagun daiskula  
Zeruko Jaunak danori.  
Pena guztiak aztuko dira  
ni egitekuan etorri,  
eta gorengo izango dot nik  
beti gure Euskalerra.

*RUTÍ*

## GERNIKA

Mundu guztí-guztiak  
ezautzen dauana,  
ibar eder erdian  
zutik dagoana,  
euskaldunak barruan  
sartuta daukana;  
nork ez maite biotzez  
Gernika kutuna?

Zure biotz barruan  
euskaldun legea,  
Zuk daukazu gorderik  
esaben fedea;  
zure Zugatz indarrez  
euskaldun trebeá  
ludi-zear joan da  
asmo-ustez betea.

Gernika, nire maite,  
biotza lerturik,  
ikusten zaitut itun,  
negarrez beterik.  
Zer da gerta yatzuna,  
ez al dozú indarrik?  
Aurkitzen zaitut orain  
ia il bearrik.

Etzara zu, ez ilgo,  
ez euki bildurrik,  
gu emen gagoz beti  
ortako gerturik;  
maite zaitugu eta  
diñotzut barrutik,  
gutzat ez dala izango  
Zu baizen besterik.

*Aldana*

## ARIATZA

Gure erria,  
beti maitia,  
emen jaio giñan ta emen bizia.  
Txoritxoak dauke euren kabia,  
guk ere emen dauku geure tokia.

Idi begia  
ikusteko euskaldun miraria:  
Ariatza da gure euskalerria.

Astegunean  
beti lanean  
dago ariatzatarra bere arloan,  
ogia irabazten lege onian,  
izerdiz lan einda egun guztian;  
gero etxian  
poza ta atsegiña sendi artian:  
olakorik ez dau gaurko munduan.

Baita domekaz  
jantzi barriaz  
doa ariatzatarra fede sendoaz  
Meza entzutera gogo bizi-az,  
Jauna gurtutzeko uste osoaz;  
gero jolasaz  
gogoa atsegindu ta etxera gauaz:  
olan betetan dau Jaungoikoagaz.

Santakurtziak  
emengo jaiak  
urteko guztiko lanen atsedanak:  
salto ta irrintzi eskola umiak,  
dantza ta abestu gazte diranak

eta zarrauak  
ardua edan ta esan kontuak:  
ai, olako asko ba'leukoz munduak!

*Aldana*

## NERE «PASADITXU» BAT

Ariatza guztia  
gaur emen baturik,  
guri entzuten dago  
oso zoraturik.  
Adurra dariola  
ao zabaletik,  
kokoloaren antza  
disimulafurik.

Olako bertso txuak  
dagona entzuten,  
eztaukola uste dot  
lotsarik nldien;  
baiña ibilli astiro  
ta egin aituten  
alegintxu apur bat  
ta itxaroin pizkaten.

Gauza guztiak dauko  
euren azalpena:  
!?.ikotxak egilen dau  
I.er?k al dabena.  
Jaungoikuak cmon daust  
uiri be almena  
ta danok dakizue:  
abizeria Aldana.

Oiain esangotzuet  
gauza entzungarria  
eta egrigozue  
askotxu barria.

Niri pasau yatana  
jruztiz da tristia,  
mutil gaztearentzat  
txit lotsagarria.

Orain iru urte dira  
astelen balian,  
arratsaldeko seirak  
ei ziran torrian.  
Orduan nik enuekan  
'neskarik alboan  
eta bizi izan niutzan  
zorion guzlian.

Artu ncban ba pozik  
bizikleta zarra  
ta neure arinketan  
naikoa indarra;  
jo ta su asi nintzan  
enietik Forura,  
baita laistertxu eldu  
Bermio aldera.

Sollube oiñez igon,  
arinka bajatu,  
orduan nik beneukan  
Loroño'ren taju;  
leuna artu neí>an ta  
ni nok atrapatu!  
Gosetu egin nintzan,  
indarrak amaitu.

ZornotzaVa eldu rjintaan  
gabeko amarretan  
eta geratu niutzan  
taberna danetan.  
Nire biotzak poza  
etxian urrian,  
baiña an neunkan sendo  
Autz-gana aurrian.

Igon gura, ezin igon,  
a zan gudaketa !  
lurra jota geratu  
/an nire olgeta.  
Lurra jota esan dot,  
gaiñera itxinduta,  
a eitez ni barriz  
oso darnututa.

Igon gura, ezin igon,  
a lotsagarria!  
gorantza egon bidia,  
berantza jarria.  
Gorantza igon gura  
berantza obia,  
laister eldu bai nintzan  
Zornotza'ra ia.

Au niri pasau yatan  
oin urte batzuek  
eta onexek dira  
gaur nire kontuek.  
Au aitu ba'dozue  
etzare tontuek.  
parkatu cistezue  
iraur nire bertsuek.

*Aldana*

## ERREGÉAK

Gabonak eta urte barriak  
urrengo dira erregenak,  
iru erregek Jesus Jainkogan  
gurtzen joaten dirianak.  
Jai ospetsua ospatuten dau  
egun orretan munduak,  
egun orixe onetsi daiten  
estalpetik Jaungoikuak.

Iru erregek joan zirean  
gurtutzen gaizkatzallea,  
biderik bide gau illunean  
aurkitu eziñik bidea.  
Izar eder bat aurkitu eben  
billatzeko estalpea,

otzez dardaraz estalpe ortan  
begira euken Jainkoa.

Bezperan beti asiten dira  
zapata danak garbitzen,  
goxalderako leioan danak  
dabez eurak imiñiten.  
Direanian goizean goizik  
leiorantza an jagiten,  
euren biotzak pozkiro danak  
diriez antxe aurkitzen.

Erregentako eguna beti  
munduan da ospatsua,  
erregen goiza benetan da bai  
umientzat pozgarria.  
Tronpeta soiñuz beterik danak  
aurkitzen da auzunia.  
Nun aurkitu lei urte guztian  
olangoa goizaldea?

*Ireneo*



## USPARITXAKO AUZUNIA

Atxelik bere altzoan dauko  
auzune txukun, polita,  
bere ondoan ermitatxo bat  
antxiñalikan jarrita.  
Bere zaindari Migel deuna da  
aingeru guztien aita,  
gizaldietan dauko Uspitxa  
ezin obeto zainduta.

Baserri orrek bost etxe daukoz  
sei bizi-leku osoak,  
bere azpitik baterik beste  
igaroten dau bultúak.  
Nun aurkitu leiz inguruetan  
Uspitxa lango auzuniak?  
Auzune ortan ba, izan dira  
bertso ta olerkariak.

Uspitxan Jauregi etxean  
aitita ei zan jaio ta azi;  
olango bertsolaririk emen  
oiñarte ez da ikusi.  
Gau eta egun, toki danetan  
egoten zan abeslari;  
gura neuke nik olangoxe bat  
ein dala ona etorri.

Nire aitita maite zintzoa  
gaixorik aurkituten zan;  
Jesus Jainkoak deitu egintson  
berari azken amasan.  
Azken amasa emoian berak  
abestuten bertsoetan,  
bere ordezko seme zintzoak  
ementxe itxi zituan.

Ireneo

## GOGAIZTOA (Deabrua)

Urtzi altsua zegoalarik  
ortzietan dizdizari,  
orra odei bat baltzaren baltzez  
argiaren estalgarri.  
Arro —aizeak astin-aldian  
eldutso Luziper'eri;  
bere abotsak sua dario,  
garmenditarra dirudi.

Uneda baten ke izurritsuak  
dana estali biarran,  
ekaitz aurrian zabaldu oi dan  
laiño baltza zirudian.  
Ekaitza laister agertu bere  
Mikel deunaren otsian,  
tximist zorrotza aukeraturik,  
*Urtzi nagusi!* irrintzian.

Oiñaztarriak astindutako  
zugatz bateren antzera,  
Luziper eta bere adarrak  
etozan ortzetik bera.  
Agur zugatzan aunditasuna,  
edertasun eta lora,  
geroztik ^eta beti-betiko  
su txingar izango dira.

Alegin danak dagizuz orain  
zeure sua geituteko ;  
urtzi-gorrotz gizaki danak  
nai zendukez zeuretzako,  
Baiña alan be zure adarrak  
eleuke a estaliko,

Egillearen aiña iñoiz be  
egiña izan eztalako.

*Lopategi*

## MAITEMINDUA

Illunpian aurkituten zan  
nire barneko leizia,  
arik eta zuk ipiñi arte  
kurtseluari txispia.  
Adimena dot kurtselu ori,  
biotza zan illunpia.  
Ai, bai atsegin maitasunaren  
kabi artan bizitzia!

Kurtselu batek egian argi,  
biona zan oriu,  
bion garretik gorantza joian  
garbi, zuri ke lainua.  
Maite zindudan, maite ninduzun,  
gaiñetik zala Jainkua,  
biotz guztiak egin ebazan  
maitasun ituTburua.

Nundik sartu zan aize zakarra,  
irrintzi otsian, nundík,  
kurtseluaren argia itzali  
ta illuna bihurturik?  
Amea ei zan, ta amesak  
ez ornen dau iraupenik.  
Ai, arrezkero kurtseluak be  
eztau nai beste argirik.

Maitasunaren leiatillatik  
lenengoz begiraturik,  
mundu barri bat idoro neban  
enekusana ikusirik.  
Geroztik nire begi leioai  
eztamotset garrantzirik;  
aragi dira t'eztarakuste  
alako ames mundurik,

*Lopategi*

## ZABAL-ALDE

Bederatzi urteko  
bertsolari koskor,  
neure maixuak gana  
buru bera nator.

Nik uste izan arren  
naizala oso jator,  
ikasi **barik** ezin  
izan neike dotor.

Zer egiten dauskuzu  
geure Zabal-alde?  
Erdi lo egon barik  
itxartu egin zaite;  
ezertxo ezin **neike**  
**egin** zure kalte  
beti zaitudalako  
biotzetik maite.

Bost etxeko auzune  
biotz erdikoa,  
zazpi bizi-lekugaz  
ornidurikoa;  
beti **zaitut** nik maite

neure auzunetxua,  
zeu zaralako neure  
jaiotza-lekua.

Bertso ta olerkari  
bai ta idazlariak,  
ainbat gazte jakintsu  
dauz gure auzuniak;  
ustez egonagaitik  
jakintsu aundiak,  
danak cz dira izango  
gu lango txoriak.

Laister daukat ustia  
praille joateko,  
baifia Zabál-aldegaz  
Jaunari bere alde  
ez naz ni aztuko;  
dautsat eskatuko,  
gaur lez beti euskaldun  
garbia izateko.

*Jontxu E.*

## ARIATZA'KO KAZERUAK

Kaza txakurak dabiz  
Zabal-aldietan  
erbiaren atzian  
aspaldi onetan;  
baiña ez da erreza  
eurek atrapetan:  
erbiak gordetan.  
Zabal-aldek bakie

Zabalen bertan dagoz

kazeru abillek,  
bertsolariak barriz  
gizon zein mutillek;  
ara etorri arren  
gizonak abillek,  
indar aundia dauka  
gure morokillek.

*Jontxu E.*

(12 *urtako*)